

EHUprest

Lanbide Heziketako irakasle teknikoen prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa

Urria 2023 - Abendua 2024

ESKEINITAKO PLAZAK
60

MODALITATEA
Erdi-presentziala

HIZKUNTZA
Gaztelania

KREDITU KOPURUA
60 ECTS Kreditu

PREZIOA
1.800,86 €

IRAKASLEKUA
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

1. Hasiera

a. Tituloaren gakoak

LHko Irakasle Teknikoaren Diploma maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikulua eskatzen duen prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa edukitzea egiaztatzen duen Ziurtagiri Ofiziala eskuratzera bideratuta dago, beren titulaziotik eratorritako arrazoiak direla-eta master ikasketetara sartu ezin dutenentzat. Hau da, Lanbide Heziketako titulazioa dutenentzat eta unibertsitate-graduaren parekoak diren ikasketa-mailarik ez dutenentzat.

Beraz, diploma honek beharrezko prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa ematen du, eta aukera ematen die Lanbide Heziketako titulazioetan **irakasle tekniko moduan eskola emateko gaikuntza lortzeko** egoera horretan dauden pertsona horiei.

Prestakuntzak 60 ECTS kreditu ditu, ikasturte bat irauten du, eta hiru modulutan banatuta dago (Generikoa, Espezifikoa eta Practicuma). Eskolak on-line modalitate semi-presentzialean emango dira, Practicumari dagozkion kredituak izan ezik; horiek aurrez aurrekoak izango dira.

b. 4 arrazoi titulu hau aukeratzeko

- ✓ Aukera profesionalak irekitzen dizkizu. Lanbide Heziketan irakasle aritu ahal izateko Ziurtagiri Ofiziala lortzeko aukera ematen dizu.
- ✓ Formakuntza pedagogikoa eskaintzen dizu. Lanbide Heziketan egun erabiltzen ari diren metodologia aurreratuak eta berrikuntzak ezagutuko dituzu.
- ✓ Sistema semi-presentzialean aritzeko aukera eskaintzen dizu. On-line plataforma erabiliz eta tartekatutako saio presentzialetan parte hartuz, ikasketa egokitua izango duzu.
- ✓ Praktiak egin ahal izango dituzu.

c. Irteera profesionalak

Irakasle teknikoaren Lanbide Heziketako irakaskuntza sisteman.

2. Programa

a. Eskola orduak

NAHITAEZKO GAIAK	HAUTAZKO GAIAK	ENPRESA-PRAKTIKAK	IKASKETEN AMAIERAKO LANA	GUZTIRA
38 ECTS kreditu	0	16 ECTS kreditu	6 ECTS kreditu	60 ECTS kreditu

b. Ebaluazio prozedurak

- ✓ **Bestelakoa:** (50 %)
- ✓ **Azken azterketa:** Irakasgaiaren kalifikazioa (50%)

c. Programa

2023/24 ikasturtea

Gaia	Hizkuntzak	ECTS kredituak	Mota	Modalitatea
Berrikuntza Hezkuntzan eta Hezkuntza Ikerketarako Hastapenak	Gaztelania	6	Nahitaezkoa	Bietakoa
Gizartea, Familia eta Hezkuntza	Gaztelania	5	Nahitaezkoa	Bietakoa
Ikaskuntza eta Irakaskuntza	Gaztelania	11	Nahitaezkoa	Bietakoa
Ikaskuntza eta Nortasunaren Garapena	Gaztelania	3	Nahitaezkoa	Bietakoa
Lanbide Orientazioa	Gaztelania	5	Nahitaezkoa	Bietakoa
Prozesuak eta Hezkuntza Testuinguruak	Gaztelania	8	Nahitaezkoa	Bietakoa
2023/24 ikasturteko enpresa-praktikak		16	Nahitaezkoa	

d. Ikasketen amaierako lana

Gaia	Hizkuntzak	ECTS kredituak	Mota	Modalitatea
2023/24 ikasturteko ikerlanak	-	6	Nahitaezkoa	-

e. Ordutegia

Asteko eguna	Hasiera ordua	Amaiera ordua
Astelehena	15:00etan	20:00tara
Asteazkena	15:00etan	20:00tara

3. Irakasleak

Aizpurua Sanz, Alaitz
Altuna Urdin, Jon
Gaintza Jauregi, Zuriñe
Ibaibarriaga Revuelta, Nagore
Lucas Mugica, Jose Francisco
Murua Carton, Hilario
Solaberrieta Mendez, Eneko

UPV/EHUkoak ez diren irakasleak

Adrian Lopez, Ester
Bilbao Navarro, Gaizka
Martin Blazquez, Ainhoa
Rodriguez Arza, Joseba Jon

4. Praktiak

Prestakuntza honek garrantzi berezia ematen dio LHko ikastetxeetan praktikak egitearen atalari, eta guztiz aurrez aurrekoak dira. Eusko Jaurlaritzak baimendutako ikastetxe laguntzaile batean egiten dira, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen kasuan. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren eta UPV/EHUren arteko hitzarmen bat dago, non practicuma egitea arautzen den eta Jaurlaritzak prestakuntza horren praktikak egiteko ikastetxetzat onartzen dituen ikastetxeak zehazten diren.

Beste erkidego batzuetako ikasleen kasuan ere badaude hitzarmen espezifikoak.

Praktikak eskaini nahi dituzten erakundeak

[UPV/EHUko ikasleen kanpoko praktikek](#) hezkuntza akademikoan jaso eta berenganatutako jakintzak aplikatzeko eta osatzeko aukera eskaintzen die ikasleei.

Enpresa edo erakunde gisa interesa baduzue berezko master edo graduondokoren bateko ikasleei praktikak egiteko aukera eskaintzeko:

1. Praktikak eskaintzeko interesgarritzat jotzen duzuen berezko masterra edo graduondokoa identifikatu ezazue. [Hemen daukazue prestakuntza eskaintza osoa](#).
2. Gurekin harremanetan jarri berezkoikasketak.ikasleak@ehu.eus mailaren bidez, hitzarmen bat adosteko.

5. Matrikula

Prezioa: 1.800 €

Sartzeko profila

Sartzeko titulazioak

Lanbide Heziketako titulua dutenak, irakaskuntzarako baliokidetzat jotakoa, LHko irakasle teknikoko kidegorako sarbidea izan nahi badute. Aurreko atala betetzen dutenak baina ez direnak irakasle aritu 2014ko irailaren 1a baino lehen, 12 hilabetez, epe jarraitu edo etenetan, baimendutako ikastegietan, LHko irakasle teknikoko mailan. Beharrezkoa da B1 mailaren baliokidea egiaztatzea atzerriko hizkuntza batean.

Hautatzeko-irizpideak

Espediente akademikoa: 5 %

Titulazioaren egokitasuna: 95 %